

gaz-teak



Doako alea

312 Zb
www.getxo.eus

>> 2017ko apirila

Egiziozu koak zure udari *Muerde tu verano*

AUZOLANDEGIAK
CAMPOS DE TRABAJO

2017

Aurreinskripzioak:
apirilaren 19tik 25era

Preinscripciones:
del 19 al 25 de abril

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

EMPLEO ETA GAZTATE
POLITIKAREN SALA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

gzt gazteakukero



“Gidabaimena Euskaraz” kanpaina abian berriro

Udalak 17 eta 23 urte bitarteko gazteen artean gidabaimena lortzeko azterketa teorikoa euskaraz egitea sustatuko du berriro, *Gidabaimena Euskaraz* kanpainaren bitartez, Bizkaiko hainbat udalekin elkarlanean, ALKARBIDE, Euskara Zerbitzuen Bilgunearen, EUDEL-en, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta baita udalerriko sei autoeskolen kolaborazioarekin ere.

Aurreko edizioetan bezala, Udalak 100 euroko diru-laguntza ematen segituko du hori egiten duten gazteei eta 100€ko txartelak zozketatu



tuko ditu gasolina erosteko. 2016an 36 getxotarrek egin zuten gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz.

Kanpainaren berri emateko, Udalak foileto baten 3.000 ale eta 200 kartel argitaratzeaz gain, eskutitza bidaliko die aipatutako adineko gazteei laguntzaren eta Getxon kolaboratzen duten autoeskolen berri emateko. Aldi berean, sare sozialetan kanpaina zabaltzeko bidea (www.getxo.eus/eu/serVICIOS/comunicacion/notas-prensa/686) erabiltzen ari da Udala.

‘Sexualitatearen Koloreak’ gida aurkeztuta

Sexualitatearen Koloreak izenburuko gida Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak duten lankidetzaren markoaren barruan burutako proiektuetako bat da. 2016an zehar Aniztasuna lantzeko gidaliburu batek beharrezko izango lituzkeen gazte ikuspegiko osagaiak identifikatu, eragileekin harremanetan ezarri eta gida errealitate bilakatzeko pausoak eman ziren.

Aniztasunaren kontzeptua LGTBI+ kolektibotik haratago doa. Izan ere, kontzeptu hori zeharkako balore gisa txertatzeak



ezinbestean dakar dauden identitate, izaera eta orientazio eredu guztiak berdintasun egoera batean planteatzea, eta onarpenaren ikuspegitik ere mahaigaineratzea. Hezkuntzan Aniztasunaren balorea zeharka txertatzeko oinarri teoriko eta praktikoa eskaintzen ditu gidaliburu honek; eta haren diskurtsoaren eraketarako oinarritzat hartu du LGTBI+ gazteekin eta hainbat gizarte eragilerekin izandako harremana.

BEKA SARIAK

“Non ikusten duzu Europa Euskadin?” VI. Argazki Lehiaketa.

Europa 14 eta 25 urte bitarteko euskal gazteei hurbildu nahi die lehiaketak, argazki batean Europak bere inguruko garapenean lagundu duen era agertzera gonbidatuz. Lehiaketa Facebook, Twitter eta Instagram sareen bitartez izango da. Argazkiak aurkezteko epea apirilaren 23ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiago: www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus

Eurolingua beken 5. deialdia. Ingeleseko ikastaroak Irlandan baliabide ekonomiko gutxiako unibertsitateko, DBHko, Batxilergoko eta Heziketa Zikloko ikasleentzat. gutxienez adina 14 urte da. Bekadunek bi aste eman ahal izango dituzte Dublino edo Derryn (aste 20 klase ordurekin), ostatua erresidentzian edo familiarekin, eta jarduerak, bisitak eta txangoak egiteko aukera ere izango dute. Beka eskatzeko epea apirilaren 12ra arte egongo da zabalik. Informazioa: 902 881 831 / www.becauseurolingua.com.

Programación Gazteleku

Apirila

Hilak 6, osteguna: TOPAKETA

Hilak 8, larunbata: MASTERCHEF LUDOTEKAREKIN: PATATA TORTILA

Hilak 12, asteazkena: MASTERCHEF: SANDWICH BEROA

Hilak 19, asteazkena: TAILERRA: EMOZIOEKIN JOLASEAN

Hilak 20, osteguna: ESKULANA: UR PILOTAK PUXIKEKIN

Hilak 22, larunbata: AMALURRAREN HILABETEA


Hilak 22, larunbata: IRTEERA: TOSUKO LANDARA

Hilak 27, osteguna: EKINTZA: MANIQUI CHALLENGE

Hilak 29, larunbata: IRTEERA: FORESTAL PARK

GauEgun gazteleku

kaixo!



2017ko Auzolandegietan izen-ematea

Apirilaren 19tik 25era zabalik egongo da 2017ko udako auzolandegietarako izena emateko epea (Interneten izango den inprimakiaren bitartez). Eusko Jaurlaritzak antolatuta, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek hartu ahal izango dute parte. Auzolandegi bakoitzak bere adin-tartearen ezarritako eta Euskadi-koak 18 eta 26 urte bitarteko gazteentzat izango dira. Nazioar-

teko auzolandegien kasuan (munduko edozein gazte parte har dezake halakoetan) ingelesez ondo hitz egitea eskatzen da eta batzuetan, auzolandegiko hizkuntza beste bat izan daiteke. Atzerrian ere nazioarteko auzolandegiak daude, baina baita Euskadin eta gainerako autonomia erkidegoetan ere. Informazio gehiago www.gazteakera.euskadi.eus webgunean.



Jaietan txosnak jartzeko baimena eskatzeko deialdia

Udalak zabaldu du Andra Mari, Algortako, Portu Zaharreko eta Romoko jaietan txosna jartzeko eskaera aurkezteko epea.

Txosna eskatu ahal izateko, besteak beste, ezinbestekoa da erakunde eskatzailea elkarrean udal erregistroan, gutxienez, 2016ko maiatzaz geroztik izatea.

Eskaerak egiteko epea apirilaren 12an itxiko da San Isidroko jaietarako eta maiatzaren 19an gainerako jaietarako. Oinarriak eta gainontzeko dokumentazioa www.getxo.eus helbidean (Oharrak eta Berriak atalean) HABetan eta Jai Arloan (Tangora Etxean, 2.solairuan, Algortan) daude ikusgai.

Jaiak 2017

- **Andra Mari, San Isidro:** Maiatzak 12, 13, 14, 15
- **Zubilleta, San Juan:** Ekainak 23, 24 eta 25
- **Andra Mari, San Juan:** Ekainak 23
- **Neguri Langile, El Carmen:** Uztailak 7, 8 eta 9
- **Santa Ana:** Uztailak 21, 22 eta 23
- **Paellak:** Uztailak 23
- **Algorta:** Uztailak 28, 29, 30 eta 31
- **Romo:** Abuztuak 1, 2, 3, 4 eta 5
- **Portu Zaharra:** Abuztuak 11, 12, 13 eta 14
- **Las Mercedes:** Irailak 22, 23 eta 24
- **La Humedad, San Martín:** Azaroak 10, 11 eta 12

“Jokover”, arriskuak kudeatzeko jokua

Jokover Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eta Etorikintza Fundazioak egindako bideo-jokoa da, 13 eta 22 urte bitarteko nerabe eta gazteekin ausazko jokoen eta apustuen erabilerrari buruzko sentsibilizazioa lantzeko, eta horiek erabiltzeak ekar diezazkiekeen arriskuak gutxitzeko. Tresna heziketaren ikuspegitik eginda dago eta ausazko jokoen zein apustuen erabilera arduratsua bultzatu nahi du, horiek erabiltzea dramatizatu edo kriminalizatu gabe. Helburua ez da nerabeak eta gazteak jokoa



edo apustuetan ez ibiltzea, debekatze estrategiek probatzeko eta esperimentatzeko gogo handiagoa sortzen dutela egiaztatu baita.

Bideo-jokoa mugikorretan App Store edo Play Storean jeitsi daiteke, baita Etorikintzaren webgune-tik PCrako bertsioa ere.

Gazte Informazio bulegoaren ordutegi berria

Tangora Etxea, Algortako Etorbidea, 98

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
ITXITA	ITXITA	9:00 - 14:00	9:00 - 14:00	9:00 - 14:00
ITXITA	ITXITA	16:00 - 19:00	16:00 - 19:00	ITXITA